

▼ **ASTIGARRAGA**

X. Sagardo Lehiaketarako txartelak salgai

JOXE ORMAZABAL

DV. ASTIGARRAGA

Hil honen 14ean, gaueko 8tan ospatuko den X.Euskal Herriko Sagardo Lehiaketa-afarira joan ahal izateko txartelak salgai jarri dira. Aurtengoen salneurria 4.000 pezetakoa da eta hona hemen lehiaketari buruzko oinarriak: lehiaketa hau afari barruan egingo da, bertan herri-tar bakoitzak puntuazioa eman-
nez; 18 urte betetako gizon-emakumeek parte har dezake-
te; partaide bakoitzak eta denak batera aurkezten diren 33 sagar-
doei puntuazioa eman behar diete; lehenengo puntuaketan ez dagoen partaideak ez du aur-
kezterik izango gaueko ondo-
rengoetan. Txartela eskuratu nahi dezuenak edota gai honi buruz argibide gehiago nai ezke-
ro Gure Izarra (551011) eta Zipotza (557963) elkarteeta jo dezakezue. Aurtengo sagardo lehiaketa hau aipaturiko bi elkarte eta Astigarrek antolatua da, herriko Udala eta Kutxaren laguntzaz. Bera gaueko 8tan hasiko da pelotalekuan.